



IES PIO BAROJA BHI Elcano 2, 20302 Irun (Gipuzkoa) 943899297

www.iespiobarojabhi.net 013013aa@hekuntza.net

2020-2021 UNIBERTSITATEAZ KANPOKO BEKAK

Familia agurgarriak,

2020-21 ikasturterako unibertsitateaz kanpoko ikasketa-beka eta laguntzarako deialdia zabaldu da, epea **urriaren 9an hasi eta azaroaren 9arte**.

Eskaera giteko argibideak jarraian dituzue:

1. 2019-20 ikasturteko beka eskatzaileak (2019-2020 ikasturtean beka eskatu zuten ikasleak):

Beka inprimakia ikastetxean inprimatuko dugu eta zuen seme-alaben bidez, emango dizuegu.

- a) Inprimakian agertzen diren datuak zuzenak badira eta ez bada inongo aldaketarik egin behar, <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> Web orrian sartu eta eskaera balidatu beharko duzue inprimakian agertuko den “**egiaztapen kodea**” erabiliz edota ikastetxera etorri eta balidatzen lagunduko zaizue.
- b) Inprimakian zerbait zuzentzeko edo aldatzeko badago, ikastetxera etorri beharko duzue. Zuzenketa edo aldaketa frogatzen duten dokumentuak ekarriz.(Errolda, RGI ziurtagiria, bestelako diru laguntza...)

2. 2020-21 ikasturtean beka lehen aldiz eskatuko duten ikasleak:

Eskaria modu ezberdinetan egin dezakezue:

- 1) Tramitazio elektronikoak: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/hezkuntza-saila/> helbide elektronikoaren bidez, administrazioak onartutako edozein egiaztagiri elektronikoaren bidez identifikatuta (Izenpe herritar txartela, NANE, B@KQ edo Izenperen Itsasontzi-jokoak) edo erabiltzaile berri gisa erregistratuz. Behin datuak ondo daudela ziurtatu eta osatu ondoren, datuetan aldaketarik ez badago, bide hauetako bati ekin beharko diozue:
 - a) Telematikoki aurrera jarraitu (sinadura elektronikoa daukazuenok bakarrik)
 - b) Eskaera-orria inprimatu, sinatu eta Ikastetxeko bulegora ekarri, erantsi behar diren agiriekin batera. Bertan eskaria ikastetxean erregistratuko da.
- 2) Aurrez aureko Tramitazioa: Ikastetxeak eskabide-inprimakia emango dio eskatzaileari, eskaera orri hori **sinatuta** eta erantsi behar diren agiriekin eskaria erregistratuko da.

Informazio praktikoa

Aurtengo deialdian Covid-19 dela eta derrigorrez bete behar ditugun segurtasun neurriak direla eta **hitzordua eskatu beharko da**.

Bulegoko ordutegia: Goizez Astelehenetik ostiralera: 9.00-14.00- Arratsaldez Astelehen eta Asteazken: 16.00-18.00

Besterik gabe, jaso ezazue gure agurrik beroena.

Idazkaritza